Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Milagros Zubillaga Solagaistua

Durango, Bizkaia
(1925-2011)



Aurkibidea

Biografia



1925eko Milagrosa egunean, azaroaren 27an, jaio zen Momotxogoikoa baserrian eta bertan bizi izan zen ordudanik. Bere ama Tresolakoa zen eta aita Betxuenen jaioa, baina Errotaritxura ezkondu ziren. 5 neba-arrebatatik gazteena da. Gerra aurretik San Vicente de Paul eskolan eta herri eskolan ibili zen, eta domeka arratsaldetan “Escuela dominical”era ere joaten zen. Gerra garaian, Karrantzara, Torrelavegara eta, azkenean, Cartesera ebakuatu zituzten. Gerratik itzuli zirenean San Frantzisko komentura joan ziren. Ereñoste etxeko Joakin Ereñagagaz ezkondu zen.

Zintak

DUR-005

- **Proiektua**: Durangoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-01-07
- **Iraupena**: 82 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Auzunea asko aldatu da

- **Erref**: DUR-005/003
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:06:51. **Bukatu**: 00:09:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Auzunean zazpi baserri etxe zeuden, denak labrantza eta ganaduekin. Latsarria ere bazegoen auzoan. Milagrosen aitaginarreba hargina izan zen. Iturria bere jaioturtean eraikitakoa da.

2. Aitak saskiak eta aulkiak egiten zituen

- **Erref**: DUR-005/004
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:09:30. **Bukatu**: 00:12:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Aitak etxe ondoan ura ateratzeko putzua egin zuen, eta teilatuko ura jasotzeko tanga bat jarri. Saski eta aulkigilea ere bazen aita. Altza egurra erabiltzen zuen bere lanean.

3. Etxeko eta baserriko lanak

- **Erref**: DUR-005/007
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:16:24. **Bukatu**: 00:18:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Senarrak etxetik kanpo egiten zuen lan. Milagrosek umeak zaindu, etxea atondu, esnea kalera eraman, ganaduak gobernatu... lan asko egiten zuen. Durango eta Bilboko azoketara ere joaten zen, etxeko barazki eta pikuekin.

4. Marzelino Palaziokoa

- **Erref**: DUR-005/008
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:18:45. **Bukatu**: 00:21:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Goizeko seietarako kortako lanak eginda izaten zituen Milagrosek. Marzelino Palaziokoaren kontu batzuk.

5. Gose denborako kontuak

- **Erref**: DUR-005/009
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:21:09. **Bukatu**: 00:23:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Egunero joaten zen Bilbo edo Durangoko azokara. Gose denboran, kalean okerrago egon ziren baserrietan baino. Kaleko jendea baserrietara etortzen zen janari truke lanera.

6. Errefuxiatuak etxean

- **Erref**: DUR-005/010
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:23:47. **Bukatu**: 00:25:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Fusilatzeak eta bonbardaketak Durangon. Etxean Gipuzkoako errefuxiatuak izan zituzten

7. Karrantzan bizitako egoera

- **Erref**: DUR-005/011
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:25:27. **Bukatu**: 00:28:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Karrantzara ihes egin zuten, ganaduak ere trenean eramanda. Karrantzan egon ziren eraikuntzan, gela-banaketa izarak esekita egin zuten. Erratzak garoarekin egiten zituzten.

8. Durangarrak abioien beldurrez

- **Erref**: DUR-005/012
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:28:00. **Bukatu**: 00:31:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Karrantzako alkateak beti ematen zien zerbait, bertara joaten zirenean babes bila. Karrantzan ez zuten bonbardaketarik ezagutu; baina, abioi-hotsa entzun orduko, han zeuden durangarrak ezkutatu egiten ziren etxe ondoko zanga batean.

9. Lagun gezurtia

- **Erref**: DUR-005/014
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:33:46. **Bukatu**: 00:36:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Gerran Karrantzara ebakuatuta joan ostean, aurretik zeuden tokitik baserri batera joan ziren. Lagun bat jipoitu zuen gezurra esan ziolako.

10. Astoaren azpian, bonbardaketatik gordetzeko

- **Erref**: DUR-005/015
- **Iraupena**: 0:04:16. **Hasi**: 00:36:06. **Bukatu**: 00:40:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Karrantzatik Cartesera joan ziren, Torrelavega ondoko herritxo batera. Han, esnearekin zihoan batean, bonbardatzen hasi ziren. Astoa horma baten kontra jarri, eta astoaren azpian egon zen gordeta bonbardaketak iraun zuen tartean.

11. Durango eta Otxandio bonbardatzen

- **Erref**: DUR-005/016
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:40:22. **Bukatu**: 00:42:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Koinatuak eta anaia Otxandioko frontean zeudela, Bitañora joan zen ama eta ahizpekin. Otxandioko bonbardaketa osoa ikusi ahal izan zuten leihotik. Egun berean, Durango bonbardatu zuten; eta jesuiten eta Andra Maria elizak suntsitu zituzten. Arbolapean gordeta zegoen jende asko metrailatu eta hil zituzten.

12. Ospitaleko eta "La Villa"ko eskola; "Escuela Dominical"

- **Erref**: DUR-005/018
- **Iraupena**: 0:04:37. **Hasi**: 00:43:00. **Bukatu**: 00:47:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Ospitaleko eskolara joan zen, harik eta Otxandioko bonbardaketaren ondorioz

ikasgela ospitale bihurtu zuten arte. Geroago, "La Villa" izeneko herriko eskolan ibili zen. Igande arratsaldetan "Escuela Dominical"era joaten zen. Lau erregelak ikasi zituen eskolan.

13. Bilboko azoka

- **Erref**: DUR-005/019
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:47:37. **Bukatu**: 00:50:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
San Antoneko azokara joaten zen Bilbora. Saltzaileen lanak eta trikimailuak azaltzen ditu.

14. Andreak aritzen ziren tratuan

- **Erref**: DUR-005/020
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:50:38. **Bukatu**: 00:53:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Bilboko azokan tratuan andrazkoak gehiago aritzen ziren gizonezkoak baino. Gero hirian saltzeko gauzak erosten zituzten tratuan. Porruak dozenaka saltzen zituen. Pikuak ere eramaten zituen. Pikuak nola batzen zituen azaltzen du.

15. Lehen sagarrak gehiago irauten zuen usteldu gabe

- **Erref**: DUR-005/021
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:53:07. **Bukatu**: 00:56:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Lehenago bertako sagarrak eta pikuak saltzen ziren, kanpoko frutarik ez zegoelako salgai. Etxean sagarrondo asko zituzten. Gaztainondoak hondatzen joan ahala, Milagrosen amak lurra aitzurtu zuen sagarrak landatzeko. Urdin sagarra, urtebetea, errege-sagarra eta beste mota batzuetako sagarrak landatzen zituzten. Sagardoa egiten saiatu ziren, baina ez zuten aurrera jarraitu. Sagarrak maiatza arte gordetzen zituzten. Lehen sagarrak gordeta zimurtu egiten ziren, ez usteldu.

16. Durangoko emakumeen kartzela

- **Erref**: DUR-005/022

- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:56:56. **Bukatu**: 00:58:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Durangoko emakumeen kartzela ez zuen ezagutu Milagrosek. Eurak Kantabriatik itzuli zirenerako kenduko zutela uste du. Emakumeen kartzela Zornotzako komentu batean zegoela dio.

17. Zauritutako soldaduak Durangon

- **Erref**: DUR-005/023
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:58:38. **Bukatu**: 01:01:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Zauritutako soldaduak Milagrosen etxe ondotik sarritan pasatzen ziren. Soldaduek salestar mojei kanta-burlak abesten zizkieten.

18. Eskolan gehien Bilboko azokan ikasi omen zuen

- **Erref**: DUR-005/024
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 01:01:01. **Bukatu**: 01:02:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Otxandioko bonbardaketaren ondorioz, “San Vicente de Paúl”, mojek ospitalean zuten eskola, itxi egin zuten. Ikasleak herriko eskolara bidali zituzten. Kantabriatik bueltatu zirenean (gerratik ihesi joan baitziren), San Frantziskoko komentuko eskolara joan zen, baina eskola baino gehiago eskulanak irakasten zituzten bertan, eta utzi egin zuen.

19. Euskaraz ezta dotrina ere

- **Erref**: DUR-005/025
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 01:02:39. **Bukatu**: 01:04:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:
Santa Ana ostean jasotzen zituzten igandeko eskolak, ”Escuela Dominical” zena. Denetik ikasten zuten han. Eskoletan arbelak egoten ziren, baina liburu gutxi. Dotrina gehien bat etxean ikasi zuen. Izurtzan elebitan irakasten omen zuten dotrina, baina Durangon euskaraz ez zuten ezer irakatsi.

20. Erromeria zorigaitza

- **Erref**: DUR-005/026
- **Iraupena**: 0:04:27. **Hasi**: 01:04:29. **Bukatu**: 01:08:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Erromerietara joaten ziren. Santa Lutziako erromeria batean, dantza-haserre bategatik, mutil batek emakume bat aizkoraz hil zuen. Egun berean, plazan sartutako pinu batera igotzeko jokoan, Mañariko mutil bat bertatik erori eta lehertu egin zen. Aulki batean eseri eta lau lagunen artean jaitsi zuten Izurtzaraino.

21. Bernagoitiko erromeria

- **Erref**: DUR-005/027
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 01:08:56. **Bukatu**: 01:12:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Iurreta eta Durangoko erromerietara joaten ziren. Bere lagun Terekin batera Bernagoitikora joan ziren. Ohikoa zen bezala, dantzara joan aurretik elizan errezatu egin zuten. Dantza gutxi eginda itzuli behar izan ziren gaua zelako.

22. Urkiolan eta Durangon, San Antonioak

- **Erref**: DUR-005/028
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 01:12:33. **Bukatu**: 01:15:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
San Antonio zen jairik printzipalena Durangon. Jatekoak astoan hartu eta gurasoekin Urkiolara joatea gogoratzen du. Gero, egunetan egoten ziren erromeriak Durangon. Erromeria askotan mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantza egiteagatik. Abadeek ez zuten larregi oztopatzen dantza lotua.

23. Dena konfesatu behar

- **Erref**: DUR-005/030
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:16:43. **Bukatu**: 01:18:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Lehengo mezak ezberdinak ziren. Gauen senarrarekin olgeta aldi bat bazuen, hurrengo goizeko lehenengo mezara joan behar izaten zuten, bekatua konfesatzera.

24. Elizako betebeharrak

- **Erref**: DUR-005/031
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 01:18:08. **Bukatu**: 01:21:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Telebistako programa bat baliatzen du, lehenago elizak bekatu eta sakramentuak erabiltzen zituen era barregarria azaltzeko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-04

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com